GUEÑESEN ESFORTZUZ EUSKARA HELBURU!

# ISSOUFEN PATUA

GUEÑESEN ESFORTZUZ EUSKARA HELBURU!

# ISSOUFEN PATUA

## I

Kamioiaren motorra gelditu zenean, Issouf bat-batean esnatu zen. Begiak irekitzean azkura sentitu zuen, estula egiteko gogoa ere bai, eta eskua ahora eraman behar izan zuen, zarata egitearen beldurrez. Ez zuen ezer ikusten, ez zekien eguna ala gaua zen, ez zeukan ideiarik non ote zegoen. Dena den, ordu asko pasatuak ziren Marokoko iparraldean kamioi haren atoian ezkutatu eta abiatu zirenetik; agian egunak ere bai. Aspaldi barruntatuak zituen muga aldeko geldialdiak eta kontrolak, kamioaren miaketak, gidariaren eta polizien arteko elkarrizketak… Gero ordu asko eman zituen lo, ezkutaleku txiki hartan nola edo hala moldatuta Ablo eta Petit lagun maliarren aldamenean. Edonola ere, Europako bazterren baten egon behar zutela ondorioztatu zuen eta poztu egin zen, adorez guztiz hustuta egon arren.

Izan ere, denbora luzeegia zeraman ezer ahoratu barik eta indarge sentitzen zen, etzanda zegoen lekutik mugitzeko ere kemenik gabe. Eta arnasa hartzeko zailtasun handiak zeuzkan. Ke usaina nabaritu zuen inguruan, autoen ihes-hoditik ateratzen denaren antzekoa, eta hasierako estul txikiak askoz nabariagoak egin ziren. Gomitu eta txizaren usainak ere sumatu zituen eta horrek denak adorea eman zion zutitzen saiatzeko. Berehala jo zuen buruaz goiko estalkiaren kontra. Ahaztua zeukan zein txikia zen hilkutxa antzeko toki hura eta artegatu egin zen. Zulo hartatik irten behar zuen lehenbailehen eta alboan zeuzkan bi gorputzak astindu zituen. Ablo eta Petit lo zeudela zirudien eta Issouf oihuka hasi zen, laguntza eske. Bere indar guztiez kolpatu zuen buru gaineko estalkia eta azkenean irekitzea lortu zuen. Ozta-ozta irten, zutitu eta kamioiaren atoian zegoela ohartu zen, kutxaz inguratuta. Pixka bat hobeto hartu ahal izan zuen arnasa, behintzat, eta ezkutalekuaren barruan etzanda zirauten bi lagunak iratzartzen saiatu zen.

- Altxa, Petit! -xuxurlatu zion bati, besotik tiraka-. Heldu gara Europara, altxa!

Baina lagunak zirkinik ere ez zuen egin eta Issoufen ahoskeraren emozio kutsua deuseztu egin zen. Bigarren lagunarekin ere ahalegindu zen eta emaitza berdina izan zen. Erabat seriotu zitzaion begitartea eta susmo txarra hartu zion egoerari. Oso urduri paratu zen eta zer egin ez zekiela gelditu zen. Bere begiak ohitzen ari ziren apurka-apurka iluntasunera eta azkenean bidaiakideen aurpegiak bereizi zituen. Ez zeukaten batere itxura onik: begiak itxita, ahoa erdi irekita… Zaplaztekoak emanda ere ez zuten erreakzionatzen eta hilda zeudela iruditu zitzaion.

Ikarak jo zuen Issouf gaztea eta handik ihes egiteko beharra sentitu zuen. Atoiko fardelen artean hara eta hona hasi zen, jauzika, larri, zaratarik ez egiteko arduraz ahaztuta. Aurrealdetik kabinara pasatzen saiatu zen, alferrik. Gero atzetik probatu zuen, azkenean lortu zuen atea irekitzea eta salto egin zuen kanpora. Ezezaguna egin zitzaion toki hura. Gaua zen, beste kamioi handi batzuk ikusi zituen inguruan aparkaturik, farola batzuen argi makalaren pean, eta, handik metro batzuetara, eraikin handi bat antzeman zuen. Jatetxe handia edo ostatua zirudien eta ondoan gasolindegia zeukan. Ez zen arimarik ageri.

Orduan isiltasuna urratu zuten oihu batzuk aditu zituen eta burua jiratu zuen. Gizon batek errieta egiten zion kamioi baten kabinatik. Esnatu berria zirudien eta, nahiz eta hizkuntza hartaz tutik ulertu ez, zerbait desatsegina esaten ari zitzaiola jabetu zen. Gizonak kamioiko atea ireki zuenean Issoufen izua handitu egin zen eta ihesari eman zion arrapaladan, indarrak non edo nondik ateraz. Eta ez zen gelditu itzal isilen babesa sumatu zuen arte.

Non arraio ote zegoen? Zapaltzen zuen errepideak itxura ona zeukan, baina ordu hartan ez zegoen batere trafikorik. Basoa ikusi zuen errepidearen alde batean, zelai bat beste aldean, eta haren erdian etxe karratu eta sendo bat begiztatu zuen, ilunpetan. Gosekilik zegoen, pot eginda. Non eska zezakeen laguntza? Etxe hartan, agian? Maliko bere herrian antzinako usadioa zen abegi ona eskaintzea edonongo bisitariei, baina Europa aldeko ohiturak guztiz desberdinak zirela zeukan entzunda. Zelan hartuko ote

zuten han gaixo itxurako beltz gazte bat gaueko ordu hartan? Ez zekien zer egin. Seinale bat ikusi zuen berarengandik metro gutxitara, errepidearen bazterrean. Haraino hurbildu zen eta berba ulertezin batzuk irakurtzeko ahaleginak egin zituen: "Bizkaiko Enkarterriak" zioen kartelaren buruak.

# II

Zer egin ez zekiela zebilen, urduri, alde batetik bestera etxera hurbiltzea aukera egokiena zela pentsatuz. Astiro etxerantz abiatu zen, baina ate aurrean zegoenean, honen barruan soinu batzuk entzun zituen ziztu bizian handik alde egin zuen.

Gasolindegirantz abiatu zen korrika eta berriro bere lagunak esnatzen saiatu zen. – “Ablo, Ablo”- deitu zion.

Baina ez zuen erantzunik jaso. Orduan besotik heldu zuen, altxatu nahian, baina bere eskuetan bere lagunaren gorpu izoztua antzeman zuen. Ablo eta Petiten herietzek bere aurpegia zurbil eta tristuraz bete zuten. Ez zen gai ezta malko bat bera ere motatzeko, guztiz etsituta eta indarrik gabe etxera bueltatu zen, ausardiaz beteta atea joz.

Berehala, norbait atera hurbiltzen ari zela nabaritu zuen, eta bat-batean, neska eder hura agertu zen. Inoiz ikusitako neskarik politena. Gari koloreko ile, itsasoa bezalakoak begi urdinak, eta azala, zuri-zuria, elurra baino zuriago. Bere irribarrea ikustean, milaka tximeleta egan hasi ziren bere sabelean. Neska altu eta lirain horrek eskuarekin sartzeko imintzioa egin zion. Issouf geldirik geratu zen, ezin baitzion begirik kendu. Bere bihotz ahulak inoiz eman dituen poz saltorik handienak ematen zituen.

Neska hurbiltzean, Issoufek, izuturik, atzera egin zuen. Baina Ablo eta Petit-en heriotzen irudia burura etorri zitzaion. Ez zuen bere lagunen bide beretik joan nahi, eta neskaren laguntza onartu zuen. Orduan neskak eskutik heldu zion eta barrurantz sartu ziren biak.

Barruan zeudela, janaria eta ura eskaini zion. Bere ondoan eseri zen eta berarekin komunikatzen saiatu zen bere izena Usoa zela esanez, baina Issoufek nahiz eta saiatu ez zuen ezer ulertu. Bere begietan ordura arte pairatutako kalamidade eta sufrimendu guztiak igartzen ziren.

Issoufen nekea ikusita, neskak nebaren logelara lagundu zion. Gau hartan neba lagun baten etxean lo egingo zuen, eta honen logela libre geratzen zen. Momentu horretan mutilaren edertasunaz konturatu zen. Usoa bere lagun berria bere nebaren logelan utzi ostean, bere logelara joan zen.

Hurrengo goizean, Usoaren ama etxea garbitzen ari zen. Issoufek kalera atera behar zen baina ezin zen amaren aurretik pasa. Usoa esnatu zenean isil isilik nebaren logelara hurbildu zen eta leihotik atera ziren biak. Issoufek, urrundu baino lehen, masailena musu bat eman zion. Momentu hartan Usoa berarekin maiteminduta zegoela konturatu zen eta ezpainetan musu bat eman zion. Issouf joan behar zen baina joan aurretik eskuartean  paper zati bat utzi zion. Paperean *Je t'amie* (maite zaitut) jartzen du.

Usoaren begietan malkoak agertzen hasi ziren eta Issoufek *Je retournerè* (itzuliko naiz) esan zion Usoarentzat ulertezina zen hizkuntza batean.

Errepidean zegoen berriz, bere begien aurrean mundu krudel eta zabal bat. Aurrez aurre kartel bat zegoen, bertan "Welcome to Enkarterri" jartzen zuen eta azpian letra gorriz "Zaramilllo".

Errepideari jarraituz hego mendebalderantz abiatu zen. Oraindik nekatuta sentitzen zen, nahiz eta jan, edan eta ohe on batean lo egin. Baina ezin zen gelditu, aurrera jarraitu behar zuen eta atzera begiratu gabe.

Bidean iparraldeko gazte batekin egin zuen topo. Gaztea Enkarterrin zegoen bere euskara hobetzeko asmoz. Issouf frantsesa zela jakin zuen frantsesez abesten entzun bezain pronto. Nora joan zitekeen galdetu zion gazteari eta bidea jarraituz oso herri atseginera helduko zela esan zion. Horrela Issouf Sodupera heldu zen.

## III

Sodupen sartu zenean guztiz galduta sentitzen zen. Beldur zen. Inork ez zuen bere hizkuntza hori uste zuen berak, behintzat. Noraezean zebilen bitartean, jende askorekin egin zuen topo baina ez zen inori laguntza eskatzen ausartzen, orduan, momentutxo batez esertzea erabaki zuen, nekatuta zegoen, ibiltzen jarraitzeko nekatuegia.

Denbora aurrera egin ahala, eta konturatu gabe, eseritatko leku beran lo geratu zen. Lasai baino lasaiago zegoen atseden hartzen, eta ez zen konturatu mutil gazte bat, 24 urtekoa, berarengana hurbildu zela esnatzeko asmoz. Esnatzeko saiakera hartan, ikaraturik, Issouf salto batez esnatu zen. Issouf oso nahasita zegoen, ez zekien nor zen mutil hori eta ez zekien zergatik esnatu zion, bere beldurra alde batera utzita, frantsesez galdetu zion:

- Nor zara?

- Hugo naiz. Laguntzarik behar duzu?.- erantzun zion Hugo frantsesez. Issouf txundituta geratu zen, ez zuen espero esnatu zion mutilak bere hizkuntzan hitz egin zezakeenik.

Issouf-ek gertatutakoa guztia kontatu zion. Hugok ezin zuen zineztu kontatutakoa, pena handiz, bere etxera gonbidatu zuen bazkaltzera eta dutxa bero bat hartzera.

Etxean sartu zirenean Issouf mahaira eseri eta Hugo itxaron zuen honek janaria ekarri arte. Jaten zuten bitartean Hugok bere bizitzari buruzko gauzak kontatzen hasi zitzaion, auto tunning bat zeukala eta festetara joatea gustatzen zitzaizkiola. Issoufek, bere aldetik, Usoa deituriko neska batekin maitemindu zela kontatu zion, eta ezin zuela hau burutik kendu esan zion.

Horrela pasa zen eguna, Issouf-ek laguntza aurkitu zuen, baina ez zen denbora luzez geratuko eragozpen handirik ez sortzeko, gainera, Usoarengana berriro bueltatu behar zen.

Hurrengo eguna argitu zen. Larunbata zen. Esnatu eta ohetik altxatu zirenean Hugok epaitegira joan behar zirela esan zion, Issouf-en egoera konpondu ahal izateko eta honen paperak lortzeko asmoz. Ez zuten arazo handirik izango Hugok lagun bat baitzeukan epaitegian eta hilabete batzuetan paperak edukiko zituzten, arazorik gabe.

Epaitegitik astera ostean Hugok herria erakutsi zion Issouf-i. Herri ez zen oso handia, baina janaria, ogia non eros zitekeen erakutsi zion … Issouf txundituta zegoen, hain desberdina zen bera bizi izan zen lekutik.

Gau hartan Hugo bere lagunekin joan zen Zallara. Issouf-ek gonbiteari ezetz esan etzean geratu zen, beste egun batean izango zen.

Gau horretan Issouf etxean geratu zen, telebista piztu eta ulertzen zuen kate bat bilatzen saiatu zen. Gaueko hamaikak eta aldera etxeko atean jo zuten. Issouf ikaraturik, altxatu eta atea zabaltzera joan zen, baina atea irekitzerakoan kolpe bat jaso zuen buruan, lurrera konorterik gabe eroriz.

Pixkanaka - pixkanaka begiak zabaltzen zaitu zen, baina ezin, argia ez zion usten, sofan eserita zegoen, gogoratzen zuen azkenengo gauza, atea zabaltzera joan zela eta … baina nor jo zion buruan?

## IV

Dena ulertezina egiten zitzaion. Ez zuen ezer ulertzen, nork jo zion, zergatik edo zertarako…? Issouf-ek esnaturik itxaron zuen Hugo Zallatik etorri arte, gertatutakoa kontatzeko.

- Zer gertatu zaizu Issof?Galdetu zuen Hugok Issouf ikusterakoan.

- Telebista ikusten nengoen norbaitek atea jo duenean. Bat batean, atea irekitzerakoan norbaitek kolpe bat eman dit. Ez dakit nor izan liteke ezta nolakoa zen ere. Zuk ez duzu jakingo nor izan liteke?– galdetu zuen Issouf-ek.

- Ez dut ezer ulertzen. Ez dakit nork egin dezakeen horrelakorik. – erantzun zuen Hugok - Baina zu ondo al zaude?

- Orain hobeto aurkitzen naiz, baina kolpea jaso ondoren konorterik gabe geratu naizela uste dut.-erantzun zuen Issouf-ek

- Lasai egon, goazen pixka baten atseden hartzera eta bihar jarraituko dugu hitz egiten.

Hurrengo goizean, Issouf esnatu zenean eta gosaltzera jeitsi zenean, Hugo bere zain zegoen. Ordu luze batez zeozer argitzen saiatu ondoren, erabaki zuten auzoan galdetzea, argibideen bila joatea, zalantzak argitzeko asmoz.

Lehengoz, fruta saltzaileari galdetu zioten, Hugoren etxe ondoan bizi baitzen. Bere atea jo zuten eta aurreko gauan zeozer arraro ikusi edo entzun bazuen galdetu zioten. Fruta saltzaileak harrituta ezetz erantzun zien. gertatutakoa azaltzea eskatu zien.

Orduan, Hugok gertatutakoa azaldu zion, nola aurreko gauean bere etxera deitu eta Issouf buruan jo zuten, konorterik gabe utziz.

Egun osoan eman zuten ikertzen, baina gaua heldu zen eta zer jakin gabe jarraitzen zuten. Etxera joatea eta hurrengo goizean ikerketarekin jarraitzea erabaki zuten.

Hurrengo egunean, argibideen bilaketarekin jarraitu zuten, Hugoren beste auzokide baten etxera hurbildu ziren. Atea jo eta ez zuten erantzunik jaso.

- Badirudi ez dagoela inor etxean- esan zuen Issouf-ek.

- Saia gaitezen berriro.- erantzun zion Hugok

Bat-batean etxearen barrualdean zarata bat entzun zen, baina erantzunik ez. Dena oso arraroa iruditu zitzaien.

# V

Egunak ez zuen batere laguntzen detektibetan ibiltzeko. Hodeitzarrak abiadura handiz mugitzen ziren, euria ez zen asko berandutuko, gehienez, hamar bat minutu. Haizea ere bere agerraldia egiten hasia zen, haize bolada bortitzekin, beraz, azkar, isiltasunez eta arrastorik utzi gabe ibili behar ginen gure ikerketan.

Issouf eta Hugoren buruen gainean lehenengo tantak erori ziren, ate ondoan erdi irekita zegoen leiho batetik begiratzen zuten bitartean. Leiho zirrikitutik eta erdi gardenak ziren gortinetatik zehar  begiratu zuten, baina ezer ikusi gabe jarraitzen zuten. Bat-batean haize bolada batek gortinak mugitu eta gizon baten irudia ikusteko aukera izan zuten.

- Ni ikusten ari naizen gauza bera ikusten al duzu, Hugo?- galdetu zion Issoufek ahots  dardaratsua eta esku izerditsuekin.

- Bai, bai, eta nik uste, hemendik alde egin beharko genuke, arazorik ez badugu nahi, behintzat!- erantzun zuen Hugok.

- Ezta pentsatu ere! Zer gertatu den jakin behar dugu eta hori lortu arte ez gara hemendik mugituko.- oihukatu zion Issoufek.

Isiltasuna egin zen bi lagunen artean. Jada ez zuen euririk egiten eta ez zegoen haizerik. Egin behar zuten gauza bakarra hain ezaguna egiten zitzaien gizon horren irudia begiratzen jarraitzea zen.

Baina gizon hura antzemateko momentuan, horren irudia desagertu zen, magia izango balitz bezala.

- Non demontre sartu da? Nonbaitetik ikusten al duzu?- urduri esaten zuen Issoufek.

- Ez ba! Edo makurtuta dago, edo... nik uste ez dugula berriro ikusiko- erantzun zuen Hugok irribarretsu.

Zorionez, gizonak zeraman arropa ikusteko tartea izan zuten. Lakidun alkandora laranja eta beltza, egun askotarako gogoan izango zutena. Baina ala eta guztiz ere, hasieran bezala zeuden. Zalantza berdinekin eta erantzunik gabe.

- Beno, zeozer behintzat argi badaukagu, ez duzu uste Issouf?

- Nik behintzat ez dut ezer argi Hugo. Ez dakigu ikusi dugun pertsona nor den, nor jipoitu ninduen ezta zergatik ere. Beraz, suposatzen da arriskuan jarraitzen dudala, edozein momentutan gauza bera gerta daiteke. Bilatzen jarraitu behar dugu, eta nik uste, ez da pentsatzen genuen bezain erreza izango.

Berriro ere zerua ilundu zen, eta kriston euri jasa bota zuen. Goitik behera busti ziren, blai eginda heldu ziren etxera. Behin etxean, bi erabaki hartu zituzten: batetik, ezin zutela ezer salatuko dokumentazio barik Issouf erbesteratu zezaketelako; eta bestetik, Usoari laguntza eskatzea zeoezer lortzeko zuten aukera bakarra. Eta horrela egin zuten.

Hurrengo egunean, zeruan eguzkitsu zegoela, Zaramillora abiatu ziren. Haien etorrera ustekabean harrapatu zuen Usoa, baina nahiz eta Issouf ikusteak eragiten zion poza ezin ezkutatu, ezin izan zuen Issouf besarkatu, bere gurasoak etxean baitzeuden. Hauek ez zuten bere alaba ezezagunekin hitz egite ikustea gogoko, hortaz agurra nahiko hotza izan zen.

Usoak Hugo aldez aurretik ezagutzen zuen, eskolara elkarrekin joaten baitziren. Beraz, haiengana segurtasun osoz abiatu zen eta hirurak ibiltzen hasi ziren inguruetako zelaietatik.

- Ea ba… azaldu berriz ere gertatutakoa ea argitzen naizen. Issouf, izan zehatza, mesedez.- esan zuen Usoak jakinguraz.

- Ezin dizut askoz gehiagorik esan, ez naiz ezertaz gogoratzen. Gogoan dudan bakarra kolpatu nindutela eta laukidun alkandora bat ikusi nuela da.

- Guzti hau oso arraroa da, ez duzu uste Usoa?- esan zuen Hugok honen gurasoen eztabaidan arreta jartzen zuen bitartean

- Egia da, baina erantzunen bat egon beharko du, ezta? Atzera egin dezagun ea zeozer gainetik pasa dugun..

Horrela orduak pasa ziren menditik ibiltzen, inolako ondoriorik atera gabe. Gehiago ikertzeko beharra zegoen.

Usoak zeozer bero hartzera gonbidatu zituen bere etxera, bere gurasoak etxean ez zeudela aprobetxatuz. Bertan izan zen gauzak argitzen hasi zirenean. Etxean duela ordu batzuk ikusitako alkandora bezalako beste bat ikusi zuten. Dena den, ezin zuten alkandora bera zenik ziurtatu.

# VI

Ordu batzuk pasa ziren ilundu zenetik, eta orduan Usoaren gurasoak etxera itzuli ziren. Issouf eta Hugo ustekabean harrapatu zituzten etxean eta tximistak bezain azkar, eta inork konturatu gabe, etxearen atzealdeko leihotik atera ziren.

Baina bat-batean Usoaren etxetik urruntzen zirela laukidun alkandoraren itzala ikusi zuten etxearen lorategian mugitzen. Issoufek ezin zion begirada kendu eta alkandorak egiten zituen mugimenduetara begiratzen geratu zen adi-adi.

- Hugo, begiratu lorategiaren bukaeran, ezetz asmatu zer dagoen!- esan zion Issofek Hugori guztiz harrituta.

- Ezin dut sinetsi! –oihukatu zuen Hugok.

Baina zarata txiki bat nahiko izan zen, laukidun alkandora desagerrarazteko.

- Noizbaiten aurkituko al dugu alkandora horren jabea?- galdetu zuen Issoufek.

Biak, guztiz nekaturik, Hugoren etxera abiatu ziren. Etxera heldu bezain pronto eta ohera sartu bezain pronto lo geratu ziren. Ikerketa egun gogorra igaro zuten.

Issouf ohean zegoela, goizeko lehenengo argi izpiak esnatu zioten. Issouf nahiko nekatuta zegoen nahiz eta gau osoan lo egiten eman. Dena den, gehiago ikertzeko gogoz altxatu egin zen, oraindik zalantza asko argitu gabe baitzituzten.

- Esna zaitez Hugo! Gaur egun eguzkitsua dugu eta.- esan zion Issoufek.

- Banoa! Gaur atzo gertatutako guztia aztertu behar dugu.- erantzun zion Hugok.

Biak, gogotsu, Usoaren etxera abiatu ziren. Usoa bakarrik zegoen etxean, Issouf ikusi zuenean, aurpegia argitu zitzaion, honi besarkada handi bat emanez.

- Zentratu egin behar gara!- oihukatu zuen Hugok irribarretsu.

Geroago, hiru lagunek ikertzen hasi ziren, lorategiaren amaierarantz abiatuz, bertan ikusi baitzuten laukidun alkandora zeraman pertsona. Bertan, eremua arakatzen ibili ziren. Issoufek bere burua gora mugitu zuenean, zuhaitz baten goialdean metalezko objektu bat ikusi zuen, eguzkiarekin distira egiten zuena.

- Mutilak! Begira ezazue gorantz...ni igoko naiz.- esan zuen Issoufek.

- Zuhaitzera igo zen eta azkenengo adarretara heltzean, begira!!! oihukatu zuen.

- Zer ote da? galdetzen zioten Usoa eta Hugo haien buruari.

- Gerriko bat da!.- oihukatu zuen Issoufek.

- Gerriko bat?- erantzun zuten Hugok eta Usoak

Issoufek gerrikoa zuhaitzetik behera bota zuen eta bat-batean paper zuri txiki bat jauzi zen.

- Zer da papertxo hori?.- galdetu zuen Usoak.

- Azkar, irakurri ezazu neska!- erantzun zioten biok ahots batean.

- *19:05 ATZEKO LORATEGIAN ITXAROTEN ZAITUT. MJ.*- irakurri zuen ozenki.

- Ez dut ezer ulertzen. Alkandoraz gain, gerriko bat eta hizki batzuk MJ...

## VII

Minutu gutxi batzuetan eztabaidan aritu ondoren, hoberena loratagia inguratzen zuten zuhaixken artean ezkutatzea zela erabaki zuten. Urduri, zer egin ez zekitela, bakoitza zuhaixka baten atzean ostendu zen, aurkituak izateko beldurrez. Ordua inoiz ez zela ailegatuko zirudien, baina bat-batean, aurreko eguneko guztiz ezberdina zen soslai bat agertu zen, “MJ” delako hori izango ote zen?

Bi mutikoek begirada Usoarengana zuzendu zuten, berehala zurbildu zena. Erantzun baten bila keinuak egiten hasi zioten bata besteari, baina neskak ezer ez zekiela zirudien.

Minutu batzuk igaro ondoren, gizona urduritzen hasi zen, han-hemenka ibiliz, biraoak botatzen. Azkenean, etorri zen bidetik aldendu zen, ernegatuta.

Hugo eta Issouf Usoarengana hurbildu ziren korrika. Usoa ziztu bizain altxatu zen, eta altxatzearekin batera negarrez hasi. Gizon horri buruz hitz egiten hasi zitzaien hitz totelka:

- Aballach da, Michael Jackson ezizenaz ezagunagoa, hortik MJ. Honela izaten da deituta, zuen begiekin ikusi izan duzuenez, beltza delako eta bere kolorea gorrotatzen duelako. – azaldu zien Usoak

- Baina, ¿zergatik zaude horren izututa?- galdetu zuen Hugok jakin-minez.

- Gizon hau dirudiena baino askoz arriskutsuagoa da. Dakidanez, gizon bat baino gehiago hil du, beltza izateagatik. Ez dakit zertan ote dabilen hemen – erantzun zion Usoak- baina Issouf kezkatzen nau.

- Ez al dakizu nori egon daitekeen zuzenduta papera? - galdetu zuen Hugok urduri.

- Ez nekien etxe honetako norbaitek berearekin harremana zuenik, ideiarik ere ez, baina nire nebarekin zerikusia duela suma dezaket.- esan zuen Usoak erdi negarrez.

- Eta zergatik berarekin? - galdetu zion Hugok.

- Zenbait arazotan sartuta egon delako azkenaldian baina … tira, uste bat besterik ez da.- esan zuen Usoak.

Elkarrizketako une horretan konturatu ziren frantsesez hitz egitetik euskarara igaro zirela eta Issouf-i frantsesera itzuli behar izan zioten.

Bat-batean, korrika bizian ikusi zuten alkandora laranja eta beltza zeraman emakume bat. Ziztu bizian, oihuka, negarrez, ODOLETAN.

Beraren atzetik hasi ziren korrika, haiek ere arriskuan sar zitezkeela pentsatu gabe. Neskak estropezu egin zuen zuhaitzaren azpian ahaztuta utzi zuten gerrikoarekin eta tinko gelditu zen lurrean, geldi-geldi.

Kontu handiz baina azkar baino azkarrago, Issouf, Hugo eta Usoak neska hori nor ote zen jakiteko makurtu eta bere aurpegia behingoz ikustea lortu zuten. Issoufen ustekaberako, bere lagunek elkarri begiratu zioten eta lurrean eseri ziren, begiak zabal-zabalik zituztela eta elurra baino zuriago.

## VIII

Hiruren artean altxatzen lagundu zuten, lurrean botata zegoen emakumea. Jarraian Usoaren etxerantz abiatu ziren gertatutakoari zentzua emateko eta zerbait bero hartzeko asmoz. Maialenek laukidun alkandora kentzen zuen bitartean, besteek salda prestatu zuten, baita sua egin, txunditүko zituen istorioa entzuteko zain.

- Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuet laguntzeagatik eta honaino ekartzeagatik. Nire izena Maialen da, eta Sodupen bizi naiz.

- Baina... nola demontre heldu zara honaino? Zer gertatu zaizu? Nork egin dizu hau guztia?- galdetzen zion Hugok bere lagun berriari.

- Lasai, lasai, dena kontatuko dizut baina dagokion momentuan. Asko eskatzea ez bada, lehenengo salda bero bat hartu nahiko nuke, eta lo kuluxka txiki bat egin. Nekaturik nago eta indarrak hartu behar ditut, ezertan hasi baino lehen.

- Ondo da. Zuk nahi duzun bezala.- erantzun zuen Usoak. Hemen pijama eta arropa garbia uzten dizut. Zeozer behar baduzu, deitu, behean egongo gara.

- Egon lasai. Esnatu bezain pronto zuen bila jeitsiko naiz eta dena kontatuko dizuet- aho zabalka erantzun zuen Maialenek.

Horrela hiru ordu igaro ziren, arratsaldeko zortziak ziren. Issouf, Hugo eta Usoak haien burutazioez hitz egiten eman zuten denbora osoa: Maialen erori zela, norbaitek bere aurka egin zuela, borroka bat izan zuela… Edozer baliagarria zen ikusitakoari azalpen bat emateko.

Zortzietan iluntzen hasia  zen. Hotza nabariagoa zen. Izarrez beteriko zeruak izoztea iragartzen zuen, etxera bueltatzea ezinduz. Usoaren gurasoak eta anaia etxean ez zeudela aprobetxatuz, bere etxean geratzera gonbidatu zituen Usoak bere bi lagunak.

Hauek ez zuten zalantzarik izan eta berehala gonbidapena onartu zuten.

Hamaikak inguru oheratu ziren. Nahiko arraro egin zitzaien Maialenen berririk ez izatea, baina ez zuten esnatu nahi. Hortaz ez ziren bere gelara hurbildu.

Horrela gaua igaro zen. Bakoitza bere ohean, bero-bero. Batzuk lo eta besteak lo egin ezinik, Issouf eta Usoa, esaterako.

Bazekiten horma batek baino ez zituela banatzen besarkatu ahal izateko, baina ez bata ez bestea ez zen ausartu aurreneko pausua ematen. Horregatik, gau osoa esnaturik eman zuten, bata bestearengan pentsatzen eta Hugoren zurrunkak entzuten.

Gau erdian, goizeko bostak inguru zirela, itzelezko zarata batek esnatu zituen. Hain handia izan zen zalaparta kalera erdi biluzik atera zirela… eta a zelako ustekabea hartu zuten ikusitakoa ikusirik.

Haien aurrean zuten irudia ikusirik, egiten zuen hotsak, ezta erdi biluzik egoteak ere ez zien beraien onera bueltatzea uzten:  MJ lurrean botata zegoen. Odolez inguraturik eta ezin mugitu. Bere ondoan  balarik ez zeukan errifle bat.

Gertaera berri honek aho bete hortz utzi zituen. Ezin zuten sinetsi gertatutakoa. Nola litzateke posible Issoufi gertatzen ari zitzaion gauza bera errudun posible bakarrari ere gertatzea? Bitan pentsatu gabe, hiruren artean etxe barruraino eraman zuten eta egongelako sofan etzan zuten. Anbulantzia etortzen zen bitartean zituen zauriak zaintzen saiatu ziren.

- Zu M.J. zara, ezta?- galdetu zuen Usoak jakin-minez.

- Bai, erantzun zuen honek ia ahotsik gabe.

- Eta… jakin daiteke zer gertatu zaizun?- galdetu zion Hugok.

- Ezin dizuet esan.

- Ez adarrik jo, mesedez. Nola ezin duzula esan? Ia-ia hiltzen zaituzte eta gainera isiltzen zara…- esan zion Issoufek guztiz urduri.

- Ea ba Issouf… ez zaitez hainbeste urduritu. Horrela ez dugu ezer lortuko. Guztiok lasaitzen garenean eta medikuak etortzen direnean gauzak argitzen joango dira. Momentuz, itxaron baino ezin dugu egin.- azaldu zuen Usoak.

Ordu erdi beranduago anbulantzia heldu zen, poliziarekin batera, gertatutakoa argitzeko asmoz. Bi ordu pasa ziren. M.J. jada ospitalean zegoen. Usoa, Hugo eta Issouf bitartean azkenengo egunetan gertatua ulertzen saiatzen ari ziren.

Gertatutako gauzetaz hitz egiten zuten bitartean, Maialen, bere lagun berria falta zela ohartu ziren. Goiko gelan lo egiten omen zegoen, baina egondako zalapartarekin arraroa zen esnaturik ez egotea. Bere bila joatea erabaki zuten.

Azkar batean eskailerak igo zituzten, eta a zer nolako sorpresa hartu zuten, Maialenen arrastorik ez zegoela konturatu zirenean.

- Ufff. Egoera honetaz aspertzen hasia naiz Usoa. Ezin daiteke izan jende guztia desagertzea. Non demontre egongo da- galdetzen zuen Issoufek haserre.

- Ni ere nekatzen hasia naiz. Ez dut ezer ulertzen.

- Egia da. Ni nahi dudan gauza bakarra Issouf nor eta zergatik jipoitu zuen jakitea da. Berriro ez gertatzea nahiko nuke.- hasperen egiten zuen Hugok.

Gelatik irtetear zeudela, Issoufek ohar bat topatu zuen lurrean botata. Egoera gero eta korapilatsuagoa egiten hasia zen.

*“Lagundu behar nauzue. Zuen laguntza behar dut baita zuek nirea ere. Laster elkar ikusiko gara.”*

**IX**

Azkenengo gertaerak zirela eta, gure lagunak gero eta galduago sentitzen ziren. Aurkitutako oharra Maialenena zela jakin izan zuten, honen berrik ez izatean aurreko gauetik. Oharraren zergatiaren inguruan hitz egin eta gero, onena atseden hartzea, zerbait jatea eta aurrerago ikerketarekin jarraitzea izango zela erabaki zuten.

Sukaldera joan ziren, bertan, mahaian eseri eta katilu bat esne eta gailetak jaten zituzten bitartean, hitz egiten jarraitu zuten:

- Hau gero eta korapilatsuagoa da. Hasieran, etxe horretan ikusi genuen itzala laukidun alkandorarekin; gero, gerrikoa oharrarekin; beranduago, Maialen, alkandora jantzita eramatearen zergatia ezagutu behar dugula; eta azkenik, MJ, lurrean botata... odolez beteta... Ez dut ezer ulertzen!- protestaka zebilen Usoa esnea irabiatzen zuen bitartean, goibel.

- Egon lasai, Usoa. Denborak dena bere lekuan jarriko du. Eta zu Issouf, egon lasai, inork ez dizu min gehiagorik egingo eta.- azaldu zuen Hugok.

- Baina Hugo, nola nahi duzu ni lasai egotea? Europara heldu berria naiz, inork ez nau ezagutzen, eta hil egin nahi naute! Nola demontre egon naiteke lasai?

Usoak begirada tristeaz begiratu zuen Issouf. Zer gertatzen ari zitekeen? Esnea edaten bukatu zuen, altxatu eta Issoufengana hurbildu zen, ezpainetan musu bat emanez, hau lasaitzeko asmoz.

Hirurek esnea bukatu ondoren, lo egitera joan ziren, bakoitza bere ohean. Egun neketsua zuten zain, hurrengo goizan MJ ospitalera bisita egiten joatea erabaki baitzuten.

- Egunon mutilak! Altxa zaitezte, gaur egun gogorra dugu zain eta!- oihu egin zuen Usoak Hugo eta Issouf esnatu nahian.

- Bainu bat hartzera noa, joan zaitezte gosaltzen eta ospitalera hurbiltzen. Ni berehala noa. Itxaron nazazue ospitalean.- esan zuen Hugok

- Beno, ondo da, baina Hugo ez berandutu gehiegi.- erantzun zion Issofek.

Arropa jantzi ondoren, Issoufek eta Usoak trena hartu zuten Zaramilloko geltokian eta Basurtuko ospitalera hurbiltzeko asmoz. Haien artean begirada sentsualak elkartrukatzen zituzten baina Issoufek ezin zuen iskanbilarik sortu, erbesteratua ez izateko.

Trena berehala heldu zen, eta nahiz eta euri zaparrada galanta bota, ospitalera ibiltzen hurbiltzea erabaki zuten.

- Goazen MJ zelan dagoen ikustera, eta ondo badago, ea zerbait dakien edo lagundu gaitzakeen galdetuko diogu.- esan zion Issoufek Usoari.

- Ondo da.- erantzun zion azken honek.

Ospitaleko ateak igaro eta izugarrizko iskanbilarekin egin zuten topo, hamaika mediku urduri logela batera abiatzen eri ziren.

- Usoa zerbait ez dabil ondo. Goazen MJ den ikustera. Azkar!- esan zuen Issoufek guztiz urduri.

- Goazen beranduegi izan baino lehen.

Eta horrela izan zen. Jada beranduegi zen. Logelan sartu ziren eta nahiz eta hasieran ez jakin MJ baldin bazen, horrela zirudien, eta ... horrela izan zen. Odolez beteta zegoen eta espasmoekin.

- Utziguzue, utziguzue! Ezagutzen dugu, utzi sartzen eta berarengana hurbiltzen, mesedez.- erregutzen zuen Usoak.

- Ezin dugu! Ez al zarete konturatzen hiltzear dagoela? Ezin dizuegu sartzeko baimena eman- erantzun zien medikuetako batek.

- Ez egin horrelakorik, mesedez, premia handikoa da berarekin hitz egitea, mesedez…!- esan zuen Issoufek medikuak baztertuz pasatzeko lekua eginez.

- Aballach! Aballach! Gu gara, Usoa eta Issouf. Gogoratzen al zara! Esaiguzu zeozer!

- Maialen...Maialen... Non zaude?...Maialen... alkandora...

- Aballach! Usoa naiz! Zer esan duzu? Maialen? Alkandora? Aballach!

- Alferrrik da. Ez dago ezer egiterik. Gau osoa koman eman du, ahal izan dugun denbora gehien bizirik mantentzen saiatu gara, baina alferrikakoa izan da dena. Bere azken hitzak zuek entzundakoak izan dira.- azaldu zien medikuak.

- Zer gertatu da hemen? Issouf, Usoa, Zer ari da gertatzen?- oihu egin zuen Hugok, gelara heldu berria zegoela.

- Hil egin da. MJ hil da. Bere azken hitzak holako zeozer izan da: " Maialen, non zaude? Alkandora..."- esan zuen Usoak guztiz beldurtua.

Medikuak gela utzi zuten, gure hiru lagunak bakarrik utziz Abllachi azken agurra emateko. Baina bere prakan zeozer topatu zuten izkutaturik. Papera idatzirik zegoen, eta horrela zioen...

*"Ce ne sera pas ainsi. Sachez que vous serez d'attente. Ce n'était qu'un avertissement. Donnez-moi ce que j'ai pris et je ne vais pas vous faire mal.''*

- Hau frantzesa dirudi.-esan zuen Usoak.- Issouf, Hugo, ba al duzue itzultzerik?

- Utzi ikusten Usoa.- esan zuen Hugok. Holako zeozer esaten duela uste dut... “ Hau ez da horrela geratuko. Zure zain egongo naiz. Hau abisu bat baino ez da izan. Buelta iezadazu kendutako, edo damutuko zara.”

Denak isilik geratu ziren, bata beste begira zer esan ez zekitela. Bat-batean emakume bat gelara sartu zen, ez zuen itxura onik. Sarreran geratu zen, begirada bat bota zion hildakoari eta desagertu zen, bere atzean usain arraro eta berezi bat utziz.

- Eta hau nor da? A zer nolako usaina utzi duen.- esan zuen Issoufek.

- Goazen, nor den jakin beharra dugu. Ezin dugu ihes egiten utzi.- oihu egin zuen Hugok.

## X

Ospitaletik atera zirenean emakume susmagarriaren aztarnak jarraitu zituzten suziri lantegi bateraino, hortaz, usain gogor hori. Emakumea lantegi horren barruan sartu zela eta trajedun eta izugarrizko gizon batekin topo egin zuela ikusi zuten hurrutitik. Gizonak buruz baietz esatearekin batera andra misteriotsua lantegira sartzen ikusi zuten. Haiek ere lantegira hurbildu ziren.

Gizonaren parera iristean, honek atea ireki zien. Txundituta geratu ziren. Ez zuten holakorik espero. Sartu zirenean pasabidez eta atez osaturiko labirinto bat ikusi zuten aurrez aurre. Nahiz eta argia eskasa eta egun hautako nekea handia izan, emakumea ate zahar batetik sartzen ikusi zuten. Leku horretan zerbait susmagarria zegoen nabarmendu zuten eta bitan pentsatu barik emakumea duela 2 minutu igarotako ate berdinetik barneratu ziren.

Ordu bete bat ibiltzen egon ondoren bulego zirudien gela handi batera ailegatu ziren. Emakumea bulego horretako idazmahaiaren gainean eserita zegoen eta horren, atzean eta aulki gorri batean jarrita adineko pertsona baten silueta.

- Arratsalde on nire ume maiteak- esan zuen dar-dar ahotsarekin.

- Zure aitona da Usoa! Zer egiten ari da bera hemen?- esan zuen Hugok.

- Oso baliagarria izan nauzu, nire ilobatxo maitea – esan zuen zaharrak ironiaz.

- Usoa. Zer gertatzen ari da hemen?-galdetu zuen Issoufek

- Nire iloba maiteak eta zuen lagun maiteak,Usoak, hona ekarri zaituzte nik aginduta.

- Hori ezin daiteke horrela izan… Usoak inoiz ez liguke trankart egingo, ezta Usoa?- esan zuen zalantzatan.

-Nire aitonak arrazoia du. Denbora luze honetan zuen laguna nintzela pentsatu duzue eta horrela errazago izan da zuek hona ekartzea.

-Barkaidazue. Nire izena Faustino da.

Usoa maharaino hurbildu zen eta musu bat eman zion bere aititeri. Issouf eta Hugo harrituta eta triste galdetu zuten:

- Zer nahi duzue gugandik?-esan zuten biok batera
- Nirea den zerbait duzue- erran zuen Faustinok ezkutuki

Biak elkar begiratu ziren  zer gertatzen ari ez zekitela. Halako batean Issoufen aurpegia guztiz aldatu zen. Gela horren ate baten atzean, gizon sendo eta altu batek ihes egiten saiatzen ari zen emakume bat besotik helduta zuen.  Issoufek  berehala ezagutu zuen emakumea.

- Zer ari zara egiten nire amarekin?

- Banekienez lagunduko ez ninduzula, zure ama bahitzea erabaki dut. Gainera, horrela ez duzu nire nahia ukatuko- esan zuen Faustinok irribarre ironikoaz.

- Aska ezazu nire ama!- esan zuen Issoufek sutan.

- Lehengoz, emaidazu behar dudana …

- Oraindik ez diguzu esan zer nahi duzun, eta, gainera, soinean daramatzadan gauza guztiak baliogabekoak dira. Ez dut uste gauza baliotsurik daramanik ...- esan zuen Issoufek  egoeraz guztiz nekaturik.

- Nola izan al zarete hain ezjakinak?  Orain arte bilatu dudan gauza zuen aurrean egon da denbora osoan eta ez zarete ezta konturatu ere egin.

- Egoera honetaz nekatuta nago, ematen badizuet nahi duzuena nire ama askatuko duzue?-esan zuen Issouf-ek f

- Noski … nor naizela uzte duzu...?- erantzun zuen Faustok erdi haserre

- Ba… orduan esan zer nahi duzun eta emango dizut.

- Behar dudana  zera da…

**XI**

Aitona pentsakor gelditu zen minutu batzuetan, ezer esan gabe, geldi geldirik. Bat batean, bere aurpegia guztiz aldatu zen. Ez zirudien asmo onik zuenik, horregatik doinu isekariz hitz egiten hasi zen.

- Ea ba, ea ba, hobeto pentsatuz, zergatik ez dugu pixka baten jolasten, eta zuek asmatzen duzue zer nahi dudan. Askoz dibertigarriagoa izango da, ez duzue uste!

Issouf bere onetik guztiz aterata Faustino erantzuten hasi zen, izan zitzakeen ondorioetan pentsatu gabe.

- Nola jakin dezaket nik  zer demontre den nahi duzun hori! Aste bat baino ez daramat hemen eta nire herritik ekarritako guztia gainean daramana baino ez da!.

Faustino barrezka hasi zen.

- Badakit zu eta zure laguna detektibetan ibiltzea gustuko duzuela, edo ez da hori izan nire ilobarekin batera egiten egon zaretena?… Hortaz, zure ama sano eta salbu ikusi nahi baduzu, badakizu zer egin: topa ezazu ahalik eta arinen nahi dudan hori edo bestela…zuena egin du…jajaja, hasi zen Fastino barreska.

Hugok bere laguna lasaitzeko keinu bat egin zion eta lagunduko ziola Usoaren aitona nahi zuen tresna hori topatzen.

Issoufen ama eusten zegoen gizonak atea ireki zien eta oso era onean gelatik irtetera gonbidatu zituen langun biak.

Lantegitik atera bezain pronto lagun biak besarkatu ziren. Hugo bere laguna lasaitzen saiatu zen, bien artean bere ama askatzeko modua topatuko zutela esanez, baita tramankulu madarikatu hura ere.

Kotxean, etxerako bidean, biak isil isilik joan ziren, bien aurpegian nabaritzen baitzen bizi izandako momentu latzak.

Etxera heldu eta ohera sartu ziren, ia ezer afaldu eta hitzik esan gabe, egun luzea zuten zain eta.

Issouf sukaldetik zetozen zaratak entzuterakoan guztiz ikaraturik esnatu zen, altxatu eta ahalik eta arinen sukalderantz abiatu zen. Bertan, Hugo topatu zuen gosaria egiten.

- A zer nolako sustoa hartu dudan, Hugo! Gu biok lotan geundela… norbait etxean sartu zela pentsatu izan dut.- esan zuen Issoufek oraindik ikaraturik.

- Lasai egon, ezin nuen lorik egin eta gosaria egitea erabaki dut zu lotan jarraitzen zenuen bitartean.- esan zuen Hugok irribarre batez, bere laguna lasaitzeko asmoz.

- Hugo, Usoaren etxera bagoaz, zerbait argituko dugula uste al duzu? Bere aitonak nahi duena esango al digu…

- Argi dagoena da, hemen geratzen bagara ez dugula ezer lortuko. Hortaz, mendia ez badator gugana,… gu joan beharko gara bere bila, ez duzu uste? -esan zuen Hugok.

Issouf eta Hugo Zaramillorantz abiatu ziren, Usoari zer esango zioten pentsatuz. Baina honen etxera heldu zirenean, aho bete hortz geratu ziren. Ezin zuten sinetsi begi aurrean zuten egoera.

# XII

Issouf eta Hugo Zaramillorantz abiatu ziren, Usoari zer esango zioten pentsatuz. Baina honen etxera heldu zirenean, aho bete hortz geratu ziren, ezin zuten sinetsi begi aurrean zutena. Etxeko atea bi handiputzez zegoen babestuta, eskopeta bana eskuetan zutela. Egoera bitxi horren aurrean etxean zerbait arraroa gertatzen ari zela sumatu zuten, orduan ikustera hurbildu ziren etxearen atzeko atetik.

Atzeko aldera ailegatzerakoan, leihoaren azpian etzan ziren, Issouf belaunikatu eta leihotik begiratzera doa. Usoa aulki batera lotuta ikusten du beltzez jantzitako bi gizonekin eztabaidatzen. Zoritzarrez, ez Hugok ezta berak ere ez dute ezer entzuten:

- Hau gehiegizkoa da, ez dut joko honetan jarraitu nahi- dio Usoak, malkoak begietan dituelarik.

- Joko hau, zuk esaten duzun bezala, hasi baino ez da egin, panpoxa- esaten dio trufati gizon batek.

- Issouf eta Hugo nire lagunak dira eta ezin ditut saldu, gainera… Issouf… Ez! Ez dut egin nahi! Ez dut egingo!- oihukatu zuen neskak.

- Egingo duzu nahi ez baduzu ere!- mehatxatu zuen batek.

- Ez! Ez dut egingo.

- Bai! Esan dugu egingo duzula nahi eta nahi ez! Zu!- oihukatu zion besteari- Ez al daukagu hortik zerbait neskatxa bihurri honentzako?- galdetu zuen lehenengo gizonak.

- Izango ez dugu ba…! Jeje jeje hemen “gozokitxo” batzuk ditugu mukitsu ziztrin honentzat- esan zuen besteak pilula bat hartuz mahai gaineko pote batetik.

Usoa egoera horretan ikustean, Issouf sentikor jarri zen eta nahiz eta Usoak egindakoa min handia eman, askatzea erabakitzen du eta horretarako plan bat prestatzen du Hugorekin bat.

Hugo, Usoa arriskuan dago. Aulki batera daukate loturik eta pilula batzuk eman nahi dizkiote, auskalo zertarako.

- Issouf, eta zer egingo dugu?- galdetzen du Hugok harrituta.

- Entzun! Plan bat daukat: zu, etxearen aurreko aldera joango zara eta hiltzaileak atetik aldentzen saiatuko zara, momentu hori aprobetxatuz, ni leihotik sartu eta Usoa askatuko dut. Ados?

- Ados!- erantzun zion Hugok burua baieztatzen astinduz.

Hormaren kontra jarrita, astiro-astiro etxeko aurreko aldera hurbildu zen Hugo. Ertzaren alboan geratu eta burua atearen sarrerari so egin zion. Heldu zirenean, atean zeuden bi handiputzak ez zeuden. Orduan, astiro eta isil-isilik atarira gerturatu zen. Une horretan ostikada batez atea ireki zuen kristoren zarata eginez, hori entzuterakoan, maltzurrak zer gertatzen ari zen begiratzera abiatu ziren eta gela hutsik zegoela ikusita, Issouf, bere indar guztiaz leihoa altxatu eta sartzen da. Usoarengana hurbildu eta zaplazteko bat eman ondoren askatu egiten du eta leihotik ateratzen du.

Ordurako, Hugo kotxera helduta izango zen eta motorra martxan jarrita izango zuen. Usoa eta Issouf autora korrika doaz eta atzeko atetik sartzen dira.

- Kontatu nahi al diguzu zer zen hor barruan geratzen ari zena? Nortzuk ziren tipo horiek? Eta zergatik zeuden zure etxean? - galdetu zuten Isoufek eta Hugok aho batez.

- Issouf, Hugo badakizue jendeak ezin duela bere familia hautatu eta ni… zoritxarrez… xenofobo eta marxista batean iloba naiz.

- Usoa, ez dut ezer ulertzen, zergatik egin didazu hau? Zer…

Une horretan Usoak muxu bat ematen dio Issouf isilarazteko eta bere sorbaldan burua estaliz negarrez hasten da, Issoufek, orduan, bere masaila gorritua ikusten du eta poliki-poliki laztantzen du Usoa belarrira hitz hauek xuxurlatzen dion bitartean: “sentitzen dut, ez nizun minik eman nahi”.

